2.- ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA-SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADIk Bizkaiko Foru Aldundiari nahiz BBKri eskatu ahal izango die dirulaguntza, jarduera egiteko epealdia amaitu baino lehen, emate-ebazpena aldatzeko eta, ondorioz, finkatutako epealdiak luzatzeko, emandako zenbatekoa murrizteko edo jarduera osatzen duten ekintzak aldatzeko. Horretarako baimena emango da aldaketaren eragilea ezusteko inguruabarra izanez gero edo jarduera ondo burutzeko beharrezkoa izanez gero, baldin eta dirulaguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada eta hirugarren pertsonen eskubideak kaltetzen ez badira.

2.-ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA-SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADI podrá solicitar tanto de la Diputación Foral de Bizkaia como de BBK, antes de que concluya el plazo para la realización de la actividad subvencionada, modificaciones de la resolución de concesión que supongan ampliación de los plazos fijados, reducción del importe concedido o alteración de las acciones que se integran en la actividad, que serán autorizadas cuando traigan su causa en circunstancias imprevistas o sean necesarias para el buen fin de la actuación, siempre que no se altere el objeto o finalidad de la subvención y no se dañen derechos de terceros.

3.-Bizkaiko Foru Aldundiak laguntza hori emateko ebazpena aldatu ahal izango du ofizioz, interesdunari eta BBKri entzun eta funtsak aplikatu aurretik, kasu honetan: laguntza emateko kontuan izan diren baldintzak aldatu badira eta, aldaketa horren ondorioz, xede den interes publikoa lortzea eragozten edo arriskuan jartzen bada, eta onuradunari kalte ekonomikorik eragiten ez bazaio.

3.-La Diputación Foral de Bizkaia podrá modificar de oficio la resolución de concesión, previa audiencia del interesado y de la BBK y antes de la aplicación de los fondos, cuando la alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión impida o dificulte la consecución del interés público perseguido y no se irroguen perjuicios económicos al beneficiario.



BEDERATZIGARRENA.- Justifikatzeko epea eta modua.

NOVENA.- Plazo y forma de justificación.

1. Justifikazioa Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean.

1. Justificación ante la Diputación Foral de Bizkaia

Dirulaguntza kudeatzen duen zerbitzua Ingurumenko Zuzendaritzako Ingurumen Kalitateko Zerbitzua da.

El servicio gestor de la subvención es el Servicio de Calidad Ambiental de la Dirección de Medio Ambiente.

ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA-SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADIk 2027ko martxoaren 31 baino lehen egiaztatu beharko ditu ekintzak, aurreko urtea aintzat izanik. Horretarako, agiri hauek aurkeztu beharko ditu Bizkaiko Foru Aldundiaren Ingurue Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailaren Erregistro Orokorrean:

La justificación de las acciones realizadas por parte de ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA-SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADI deberá efectuarse antes de 31 de marzo del 2027 mediante la presentación en el Registro General del Departamento de Medio Natural y Agricultura de la la Diputación Foral de Bizkaia de la siguiente documentación :

1.1.- Ezarritako baldintzak betetzeari buruzko jarduera-memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita. Memoria horrek atal espezifiko bat izango du, genero-ikuspegitik egindako ekintzak ebaluatzeko, eta egindako ekintzen datuak sexuaren arabera bereizita eman beharko ditu.

1.1- Una memoria de actuación del cumplimiento de las condiciones impuestas, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos. Esta memoria contendrá un apartado específico de cara a evaluar las acciones realizadas desde una perspectiva de género, debiendo aportar datos segregados por sexo de las acciones realizadas.

1.2.- Garatutako jardueren kostua justifikatzeko memoria ekonomikoa, honako hauek jasoko dituen:

1.2.- Una memoria económica justificativa del coste de las actividades desarrolladas, que contendrá:

a) Egindako jarduerari egotzitako gastuen eta diru-sarreraren egoera-orria. Bete beharreko gastuen eta diru-sarreraren egoera-orriak 1. Inprimakian proposatzen den ereduaren egiturari erantzuteko beharko dio.

a) Estado de gastos e ingresos imputados a las actividades desarrolladas. El estado de gastos e ingresos a cumplimentar deberá responder a la estructura del modelo que se propone en el formulario 1.

b) Aurreko a) idatz-zatian adierazitako gastuen egoera-orria osatzen duten kontzeptu bakoitzerako, diruz lagundutako proiektuaren gastuen zerrenda sailkatua egingo da, hartzekoduna, dokumentu-zenbakia, zenbatekoa eta jaulkipen- eta ordainketa-data adierazita, 2 a), b), c) eta d) formularioetan proposatzen den dokumentuaren egituraren arabera. Justifikazio-epea amaitzen den egunean benetan ordaindutako gastuak bakarrik hartuko dira kontuan.

b) Para cada uno de los conceptos que componen el estado de gastos señalado en el apartado a) anterior, se elaborará una relación clasificada de los gastos del proyecto subvencionado, con identificación del acreedor, número de documento, importe y fecha de emisión y pago, conforme a la estructura del documento que se propone en los formularios 2 a), b), c) y d). Solo se tendrán en cuenta gastos efectivamente abonados a la fecha de fin de plazo de justificación

c) Diru-sarreraren egoera-orria osatzen duten partida bakoitzerako, aurreko a) idatz-zatian aipatzen diren diru-sarreraren, dirulaguntzen edo beste diru-sarrera batzuen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita, 3 a) eta b) formularioetan proposatzen den dokumentuaren egituraren arabera.

c) Para cada una de las partidas que componen el estado de ingresos, una relación detallada de los ingresos que se mencionan en el apartado a) anterior, de las subvenciones o de otros ingresos, indicando importe y procedencia, conforme a la estructura del documento que se propone en los formularios 3 a) y b).

d) Gastuen zerrenda sailkatuan sartutako kostu orokorrak eta/edo zeharkakoak banatzeko irizpideak

d) Indicación de los criterios de reparto de los costes generales y/o indirectos incorporados en la relación



adieraztea

clasificada de gastos.

Dirulaguntzen araudia onesten duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuko 57.2. c) artikuluan ezarri denarekin bat erakunde salbuetsita egongo da memoria ekonomikoan fakturak aurkeztetik edo agiri baliokideak inkorporatzetik eta bidezko ketaren egiaztapena laginketaren bidez egingo da.

Horretarako, memoria ekonomikoa aurkeztu ondoren, Ingurumenaren Kalitatea Zaintzeko Zerbitzuak adieraziko zer faktura edo merkataritzako trafiko juridikoan haien froga-balio baliokidea duten gainerako zer agiri aurkeztu behar dituzun (jatorrizkoak zein haien kopiak), haiek egiaztatzeko.

2.. Justifikazioa BBKren aurrean

2027ko urtarrilaren 31 baino lehen, agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

1.- **Txosten tekniko eta ekonomikoa.** Hor, gutxienez, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak deskribatuko dira, eta dokumentuan, egindako gastuen, lortutako sarreraren (BBKren eta BFaren ekarpena barne hartuz) eta ordaindutako fakturen inbentarioa barne hartuko dira. Hori guztia egiaztatuta, ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA-SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADIren ordezkari baimenduak sinatuta. **Ikusgaitasun-ekintzen justifikazioa**, eta hor on-line eta off-line hedabideetan, bai erakunde barneko jendearentzat izan diren hedabideetan, bai gizartearentzat oro har izan direnetan, egindako zabalkunde- eta ikusgaitasun-jardueren proba grafikoak sartuko dira.

2.- I. eranskinean adierazitako **gizarte-eragineko fitxa**, baina oraingo honetan, Proiektua egin ondoren sortutako behin betiko datuekin beteta.

3.- Horrez gain, ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA-SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADIk BBK-k eskatzen badu, proiektuari eta gastuei buruzko beste edozein informazio edo dokumentazio emango duela hitzematzen du, eta hala badagokio, BBK-ri proiektuaren auditoretza bat egiten utzi egingo diola. Halaber, BBK-k erakunde onuradunaren urteko kontuak eskatzeko eskubidea izango du.

De conformidad con lo dispuesto en el art. 57.2. c) del Decreto Foral 34/2010 de 23 de marzo por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, la entidad estará exenta de presentar facturas o documentos equivalente incorporados a la memoria económica y la comprobación de la justificación se realizará mediante muestreo.

A tal fin, una vez presentada la memoria económica, el Servicio de Calidad Ambiental, le indicará que facturas y/o demás documentos de valor probatorio equivalentes al tráfico jurídico mercantil de las recogidas en el estado de gastos deberá presentar en original y copia para su comprobación.

2.. Justificación ante la BBK

Antes del 31 de enero del 2027, deberá presentar la siguiente documentación:

1.- Una **Memoria Técnica y Económica** en la que, al menos, se describan las actividades realizadas y resultados conseguidos, incluyendo en el documento un detalle de los gastos incurridos, ingresos obtenidos (incluida la aportación de BBK y DFB) y un inventario de las facturas abonadas, todo ello certificado con la firma de persona autorizada representante de ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA-SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADI. **Justificación de las acciones de visibilización**, donde se adjuntarán las pruebas gráficas de las actividades de difusión y visibilización en medios on-line y off-line realizadas, tanto para medios que hayan ido destinados al público interno de la entidad como para la sociedad en general.

2.- La **Ficha de Impacto Social**, señalada en el Anexo I, pero en esta ocasión, cumplimentada con los datos definitivos resultantes tras la realización del Proyecto.

3.- Adicionalmente, ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA-SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADI, se compromete a suministrar cualquier otra información o documentación relativa al proyecto y sus gastos, a petición de BBK y, en su caso, a someterse a una auditoría del Proyecto por parte de BBK. Asimismo, BBK se reserva el derecho a solicitar las cuentas anuales de la entidad beneficiaria.



Bizkaiko Foru Aldundiak emandako dirulaguntzaren egiaztatzea.

Ingurumen Kalitateko Zerbitzuak honako hau egiaztatuko du:

1.- Proiektuaren edo egindako jardueraren gaineko azalpen-memoriaren edukia.

Memoria horretan, egindako jardueren alderdirik garrantzitsuenak jasotzeko behar dira.

2.- Erakundeak aurkeztutako txosten ekonomikoaren edukia, sarrerak eta gastuak zehaztuta. Halaber, Ingurumen Kalitateko Zerbitzuak lagin gisa eskatutako eta merkataritza-arlo juridikoan egiaztatzeko balio duten fakturak edo agiriak zuzenak direla eta diruz lagundutako jarduerarekin bat datozeela egiaztatuko da.

Egiaztapen hori Ingurumenaren Kalitatea Zaintzeko Zerbitzuaren txostenean agertu behar da.

Txostena onuradunek dokumentazio hori aurkeztu ondoren egingo da, gehienez ere hura aurkeztu denetik 4 hilabeteko epean.

HAMARGARRENA.- Azpikontratazioa.

Hitzarmen honen ondoretarako, azpikontratatu dela ulertuko da dirulaguntza jasotzen duen erakunde onuradunak jardura oso-osorik edo zati batean hirugarrenekin egitea hitzartzen duenean.

Erakunde onuradunak osoz edo zati batean azpikontratatu dezake diruz lagundutako jardura, honakoak betetzen baditu: maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 27. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuko 53. artikuluan adieraziko eskakizun eta debekuak.

Erakunde onuradunak jardura %100ean azpikontrata dezake, baina proiektuaren zuzendaritza zuzenean berak egin behar du, ezin izango du azpikontratatu.

Hirugarrenekin itundutako jardura dirulaguntzaren %20 baino handiagoa bada, kontratua idatziz formalizatuta egon behar da eta baimena eskatu behar da zati Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari. Zuzendaritza horrek 15 eguneko epean ebaztuko du. Aldi horretan berriazko ebazpenik eman ezean,

Comprobación de la subvención concedida por parte de la Diputación Foral de Bizkaia.

Por parte del Servicio de Calidad Ambiental se procederá a la comprobación de:

1.- El contenido de la memoria técnica explicativa del proyecto o actuación llevada a cabo.

En esta memoria, se deberán recoger los aspectos más relevantes de las actuaciones realizadas.

2.- El contenido de la memoria económica detallada de ingresos y gastos presentada por la entidad. Así mismo se verificará que las facturas o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil, que hayan sido requeridas por el Servicio de Calidad Ambiental a modo de muestreo, son correctas y se corresponden con la actuación subvencionada.

Esta comprobación se plasmará en un informe del Servicio de Calidad Ambiental

Este informe será realizado una vez que las entidades hayan presentado dicha documentación y en un plazo máximo de 4 meses desde su presentación.

DÉCIMA.- Subcontratación.

A los efectos de este convenio, se entiende que se produce subcontratación cuando la entidad beneficiaria de la subvención concierta con terceros la ejecución total o parcial de la actividad que constituye el objeto de la subvención.

La entidad beneficiaria podrá subcontratar total o parcialmente, la actividad subvencionada, de acuerdo con los requisitos y prohibiciones establecidos en el artículo 27 de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo y el artículo 53 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010 de 23 de marzo.

La actividad que la entidad beneficiaria subcontrate, podrá llegar al 100%, reservándose siempre la acción directa de la dirección del proyecto, que no podrá ser subcontratada.

Cuando la actividad concertada con terceras personas exceda del 20% de la subvención el contrato deberá estar formalizado por escrito y deberá solicitarse una autorización a la Dirección General de Medio Ambiente, quien resolverá en un plazo de 15 días. Caso de no mediar resolución expresa, la autorización se



baimena emantzat hartuko da administrazio-isiltasun bidez.

considerará concedida mediante silencio administrativo.

Foru Administrazioak, preskripzio-aldiaren barruan, azpikontrataturako jardueren kostua eta merkatuko balioa egiazta ditzake, 34/2010 Foru Dekretuak, martxoaren 23koak, 5/2005 Foru Araua, maiatzaren 31koa, Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen lege-araudi orokorra arautzen duena, garatzeko dirulaguntzen araudia onartzeari buruzkoak, 72. artikuluan xedatutakoarekin bat.

La Administración Foral podrá comprobar, dentro del periodo de prescripción, el coste, así como el valor de mercado de las actividades subcontratadas de conformidad con lo establecido en el artículo 72 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por el que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

HAMAIKAGARRENA.- Zerga-betebeharrak, gizarte-segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzearen ondoriozkoak.

UNDÉCIMA .-Obligaciones tributarias, con la seguridad social y por reintegro de subvenciones.

ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA-SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADIk zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatu beharko du, laguntza emateko ebazpen-proposamena ezarri baino lehen.

ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA-SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADI deberá acreditar, con anterioridad a dictarse la propuesta de resolución de concesión, que se encuentra al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

Baldin eta egiaztapenean antzematen bada erakunde onuradunak ez duela betetzen aurreko paragrafoan ezarritakoa, 10 eguneko epea emango zaio bere egoera erregularizatzeko, eta adieraziko zaio, hori egin ezean, Aldundiaren ekarpen ekonomikoa jasotzeko eskubidea kenduko zaiola, administrazio-ebazpen baten bitartez.

Si como consecuencia de la comprobación efectuada resulta que tal entidad incumple lo establecido en el párrafo anterior, ésta será requerida para que en el plazo de 10 días regularice tal situación con indicación de que, en caso contrario, pierde el derecho a la aportación económica foral, previa a la correspondiente resolución administrativa.

Edonola ere, dirulaguntza ez da ordainduko eskaera izapidetu bitartean eskatzaileak ez baditu egunean zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, edo zorduna bada dirulaguntzak itzultzeko prozeduraren ebazpen baten bidez.

En cualquier caso, no se materializaría el pago de la subvención si a la fecha de su tramitación no se está al corriente en el cumplimiento de las citadas obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social, o sea deudora por resolución de procedimiento de reintegro de subvenciones.

HAMABIGARRENA.- Emandako dirulaguntzaren publizitatea.

DECIMOSEGUNDA.- Publicidad de la subvención concedida.

1.- Bizkaiko Foru Aldundiaren aldetik:

1.- Respecto de la Diputación Foral de Bizkaia:

a.- ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA-SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADIk Bizkaiko Foru Aldundiak emandako lankidetzak zabalatzeko konpromisoa hartzen du; horretarako, sortzen diren dokumentuetan eta dibulgazio edo erreferentziako elementu guztietan Foru Aldundiaren irudi korporatiboa txertatuko du.

a.- ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA-SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADI se compromete a difundir la colaboración prestada por la Diputación Foral de Bizkaia, insertando la imagen corporativa de la Diputación Foral, en todo documento generado, elemento divulgativo o referencia del mismo.

Bizkaiko Foru Aldundiak egokitzen jotzen duen edozein euskarritan erabili eta sartu ahal izango ditu

La Diputación Foral de Bizkaia podrá utilizar e incorporará en cualquier soporte que juzgue



hitzarmen honetan aurreikusitako jarduketetan sortzen diren materialak, dokumentuak eta datuak. Horrelakoetan, ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA-SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADIren laguntzaz egin dituela adieraziko du.

conveniente los materiales, documentos y datos elaborados en el desarrollo de las actuaciones previstas en este convenio, indicando que han sido realizados con la colaboración de ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA-SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADI.

b.- Eginbehar hori betetzen ez bada, Dirulaguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauak IV. tituluan aurrez ikusitako araubidea aplikatuz izan daitezkeen erantzukizunak alde batera utzi gabe, hurrengo arauak aplikatuko dira:

b.- De incumplirse esta obligación, y sin perjuicio de las responsabilidades en que, por aplicación del régimen previsto en el título IV de la Norma Foral 5/2005 de Subvenciones pudieran corresponder, se aplicarán las siguientes reglas:

1) Oraindik baldintzak betetzea posible bada, Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritzak ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA-SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADIri gehienez ere 15 eguneko epean zehaztutako zabalkunde-neurriak har ditzan eskatuko dio eta, Dirulaguntzei buruzko Foru Arauak 33. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, ez betetzeak dituen ondorioei buruz berariaz ohartaraziko dio. Baliogabetzeko edo itzultzeko erabakirik ezingo da hartu, Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailak izapide hori bete gabe.

1) Si resultara aún posible su cumplimiento en los términos establecidos, La Dirección de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Bizkaia requerirá a ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA-SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADI para que adopte las medidas de difusión establecidas en un plazo no superior a 15 días, con expresa advertencia de las consecuencias que de dicho incumplimiento pudieran derivarse por aplicación del artículo 33 de la Norma Foral de Subvenciones. Sin que pueda adoptarse ninguna decisión de revocación o reintegro sin que el Departamento de Medio Natural y Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia hubiera dado cumplimiento a dicho trámite.

2) Neurri hauek eragindako jarduerak jada eginak daudelako baldintzak betetzea ezinezkoa bada, Bizkaiko Foru Aldundiko ingurune naturala zaintzeko Sailak hautazko neurriak zehatz ditzake, betiere jasotako finantzaketa publikoa hasieran adostutako norainoko berarekin heda badaiteke. Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailak ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA-SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADIri egindako errekerimenduan neurriak hartzeko 15 eguneko epea zehaztuko da gehienez ere, eta Dirulaguntzei buruzko Foru Arauak 33. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, ez betetzeak dituen ondorioei buruz berariaz ohartaraziko dio.

2) Si por haberse desarrollado ya las actividades afectadas por estas medidas, no resultara posible su cumplimiento en los términos establecidos, el Departamento de Medio Natural y Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia podrá establecer medidas alternativas, siempre que estas permitieran dar la difusión de la financiación pública recibida con el mismo alcance de las inicialmente acordadas. En el requerimiento que se dirija por el Departamento de Medio Natural y Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia a ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA-SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADI se fijará un plazo no superior a 15 días para su adopción con expresa advertencia de las consecuencias que de dicho incumplimiento pudieran derivarse por aplicación del artículo 33 de la Norma Foral de Subvenciones.

2.- BBK Banku Fundazioaren aldetik:

9/2016 fundazio legearen 28. artikuluan ezartzen diren BBKren jarduerari dagozkion publizitate betebeharrak betetzen lagutza behartzen da ARANZADI erakundeak. Hau dela eta, ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA-SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADI erakundeak bere Proiektua behar den moduko difusioa egitera behartu egiten da, gizarteak honen berri izan dezan.

2.- Respecto de la Fundación Bancaria BBK:

ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA-SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADI se compromete a colaborar con BBK en el cumplimiento de la obligación legal que afecta a BBK de publicitar sus actividades para conocimiento general, que se señala en el artículo 28 de la Ley 9/2016 de fundaciones. En particular, ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA se compromete a realizar suficiente difusión de su Proyecto, de forma que sea conocido por la sociedad en general.





Hori dela eta komunikazio publikorako erabiltzen diren euskarri guztietan (programa, kartel, erakundearen webgune, euskarri informatikoetan, hedabideetako parte-hartze eta abarretan ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA-SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADI k esplizituki agerraraziko du BBK-ren laguntza dagozkion programa edo jardueretan, erakunde honek finkatzen duen deiturarekin agertu beharko duelarik.

Halaber, BBK-k bere edo BBKren anagrama, marka edo ezaugarria sartzeari eskatu ahal izango du Hitzarmen honetan jasotako jardueren buruzko edozein dokumentazio, argitalpen edo jakinarazpenetan.

3.- Hitzarmena zabaltzea.

Hitzarmen hau sinatzen dutenek jendaurrean ikusgai jar dezakete biak ados badaude, egokituz jotzen duten unean eta moduan, txostenen, prentsa-oharra, publizitatearen edo beste edozein barne edo kanpoko komunikazioaren bidez, betiere hitzarmen hori sinatzen duten alderdiek parte hartu dutela berariaz adierazten badute.

HAMAHIRUGARRENA.- Ez-betetzea eta dirua itzultzea.

1. Jasotako dirulaguntza eta beraren berandutza-korrituak itzuli beharko dira, baldin eta dirulaguntza arautzen duen foru dekretuan ezarritako betebeharretakoren bat eta Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 33. artikuluan ezarritako betebeharretako baten bat betetzen ez bada, besteak beste:

-Dirulaguntza jasotzeko behar diren baldintzak faltsutuz edo dirulaguntza jasotzea galaraziko luketen datuak ezkutatzuz jaso bada dirulaguntza.

-Helburua, jarduera edo proiektua zati batez edo osorik ez betetzea, edo dirulaguntza emateko oinarri den jokabidea ez izatea.

- Justifikatzeko betebeharra ez betetzea.

- Finantzaketa egiaztatzeko eta kontrolatzeko jarduketari (Dirulaguntzei buruzko Foru Arauko 13. eta 14. artikuluetan ezarriak) traba egitea, aitzakiak edo oztopoak jartzea edo haiei uko egitea, eta kontabilitateko, erregistroko edo dokumentuen

Por lo anterior, en todos los soportes de comunicación pública que se utilicen (programas, carteles, sitios web de la entidad, soportes informáticos, participaciones en medios de comunicación, etc.), ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA-SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADI hará constar, de forma explícita, la colaboración de BBK en los respectivos programas o actividades objeto de este convenio debiendo figurar con la denominación que esta entidad señale.

Asimismo, BBK podrá exigir la inclusión de su anagrama, marca o signo identificativo en cualquier documentación, publicación o comunicación relacionada con las actividades recogidas en el presente Convenio.

3.- Difusion del convenio.

Los firmantes de este Convenio podrán hacerlo público de mutuo acuerdo en el momento y modo que estimen oportunos a través de Memorias, Notas de Prensa, Publicidad o cualquier otro medio de comunicación interna o externa, haciendo siempre mención expresa de la participación de las partes firmantes de dicho Convenio

DECIMOTERCERA.- Incumplimiento y reintegros.

1. Procederá el reintegro de la subvención recibida y los intereses de demora correspondientes, cuando se incumplan alguna o algunas de las obligaciones establecidas en la normativa reguladora de la subvención, o las recogidas en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por las Administración Foral, y demás normativa aplicable, entre ellas:

- Obtención de la subvención falseando las condiciones requeridas para ello u ocultando aquellas que lo hubieran impedido.

- Incumplimiento total o parcial del objetivo, de la actividad, del proyecto o la no adopción del comportamiento que fundamentan la concesión de la subvención.

- Incumplimiento de la obligación de justificación.

- Resistencia, excusa, obstrucción o negativa a las actuaciones de comprobación y control financiero previstas en los artículos 13 y 14 de la Norma Foral de subvenciones, así como el incumplimiento de las obligaciones contables, registrales o de conservación



kontserbazioko betebeharrak ez betetzea.

de documentos.

2. Aurreko paragrafoan azaldutako kasuetatik kanpo, baldintzak partez betetzen direnean edo epearen barruan jardueraren zati bat bakarrik egiten denean, zalantzarik gabe frogatzen bada onuradunak konpromisoak betetzeko asmoz jardun duela, dirulaguntzaren zati bat ordainduko da edo, hala behar denean, dirulaguntzaren zati bat itzuli beharko da, egin behar zen jarduera osoaren zenbateko zatia egin den kontuan hartuta.

2. Fuera de los casos expresados en el párrafo precedente, el cumplimiento parcial de las condiciones o la realización en plazo de sólo una parte de la actividad, siempre que se acredite una actuación del beneficiario inequívocamente tendente a la satisfacción de los compromisos, dará lugar al pago parcial de la subvención o, en su caso, al reintegro también parcial aplicando la proporción en que se encuentre la actividad realizada respecto de la total.

3. Bizkaiko Foru Aldundiko zerbitzuek egiaztapen edo kontrol finantzarioa egin ondoren, jada dirulaguntza jaso denean egindako gastu guztiak edo zati bat ez direla ordaindu azaltzen bada eta hartzekodunek eska baditzakete, itzultzeko eskatuko da eta, horretarako, proportzionaltasunaren printzipioa erabiliko da. Hori horrela, dirulaguntza itzuli beharko da, diruz lagundu eta egotzitako gastu guztien gainean ordaindu gabeko gastuen proportzioan.

3. Si de la realización de una comprobación o control financiero por los servicios de la Diputación Foral de Bizkaia se pusiera de manifiesto la falta de pago de todos o parte de los gastos realizados, después de cobrada la subvención, siendo exigibles por los respectivos acreedores, se exigirá el reintegro aplicando el principio de proporcionalidad, a cuyo efecto se considerará reintegrable la subvención en proporción a los gastos no pagados respecto al total de gastos subvencionables imputados.

4. Era berean, dirulaguntzaren zenbatekoak, isolatua edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo bitartekoekin elkartuta, diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen duenean, dirulaguntza jaso duen jardueraren kostuaren gainean lortutako soberakina itzuli beharko da eta dagozkion berandutza-interesak eskatuko dira.

4. Igualmente, cuando el importe de la subvención aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada, procederá el reintegro del exceso obtenido sobre el coste de la actividad subvencionada, así como la exigencia del interés de demora correspondiente.

HAMALAU GARRENA.- Dirulaguntza itzultzea, berezko ekimenez.

DECIMOCUARTA.- Devolución de subvención por propia iniciativa.

1.- Aldez aurretik eskatu gabe, ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA-SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADIk borondatez dirulaguntzaren zati bat edo guztia itzultzen badu, Dirulaguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauak 34. artikuluan ezarritakoaren arabera, Bizkaiko Foru Aldundiak berandutza-interesak kalkulatuko ditu, benetan itzuli artekoak.

1.- Para el supuesto en el que ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA-SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADI sin previo requerimiento, procediere a la devolución voluntaria total o parcial del importe de la subvención, la Diputación Foral de Bizkaia procederá al cálculo de los intereses de demora de acuerdo con lo previsto en el artículo 34 de la Norma Foral 5/2005 de Subvenciones y hasta el momento en que se produjera la devolución efectiva.

2. Horretarako, dagokion eskabidea aurkeztu beharko da eta diputatuaren foru-agindu bidez ebatziko da. Agindua horretan, dagokion zenbatekoa sartzeko baliabideak adieraziko dira.

2. Horretarako, dagokion eskabidea aurkeztu beharko da eta diputatuaren foru-agindu bidez ebatziko da. Agindua horretan, dagokion zenbatekoa sartzeko baliabideak adieraziko dira.

3.- Onuradunak finantza erakunde batean edo telebankuaren sistemaren bidez itzuli behar du

3.- Una vez practicado el abono por la persona beneficiaria de la subvención, bien en una entidad



dirulaguntza; hori egin ostean, kopia bat edo itzulketaren frogagiria aurkeztu beharko da Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko foru Saileko foru zerbitzu kudeatzailean.

financiera, bien a través del sistema de telebanca, habrá de remitirse copia de la misma o justificante del respectivo ingreso al Servicio foral gestor del Departamento de Medio Natural y Agricultura.

HAMABOSGARRENA.- Dirulaguntzen finantza kontrola.

1. ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA-SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADIk lankidetzak eskaini behar du eta Bizkaiko Foru Aldundiak nahiz araudi komunitarioarekin bat finantza-kontrolaren funtzioak dituzten organoek eskatutako dokumentazioa emango du. Xede horretarako, Dirulaguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauko 40.1 artikuluan aitortutako ahalmenak izango ditu, besteak beste:

a) Egiaztatu nahi den dokumentazioa, euskarri informatikoan dauden programak eta artxiboak barne, libreki lortzea.

b) Dirulaguntza oker lortu, gozatu edo erabili dela susmatzen denean, operazio horiei buruz fakturen, dokumentu baliokideen edo ordezkoen eta beste edozein dokumenturen kopia lortzea edo atxikitzea.

2. Eginbehar hori betetzeari uko egiten bazaio, oztopoa, aitzakia, traba edo ukoa izango da, Dirulaguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauko 33. artikuluan aurrez ikusten duenerako, legozkiokeen zehapenak alde batera utzi gabe.

3. ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA-SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADIk Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailari jakinarazi beharko dio dirulaguntza ematean kontuan hartu diren baldintzak aldatzen dituen inguruabarren bat gertatu bada edo xede bererako beste laguntza edo dirulaguntza publikoren bat lortu bada.

4. Erakunde onuradunak jasotako funtsen aplikazioaren frogagiriak gorde behar ditu, agiri elektronikoak barne, egiaztatze eta kontrolatzeko jarduketetan erabilgarri izan daitezkeen bitartean.

DECIMOQUINTA.- Control financiero de subvenciones.

1. ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA-SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADI está obligada a prestar colaboración y facilitar cuanta documentación sea requerida por la Diputación Foral de Bizkaia, así como a los órganos que, de acuerdo con la normativa comunitaria, tengan atribuidas funciones de control financiero, a cuyo fin tendrán las facultades reconocidas en el artículo 40.1 de la Norma Foral 5/2005 de Subvenciones, entre ellas:

a) El libre acceso a la documentación objeto de comprobación, incluidos los programas y archivos en soportes informáticos.

b) La obtención de copia o la retención de las facturas, documentos equivalentes o sustitutivos y de cualquier otro documento relativo a las operaciones en las que se deduzcan indicios de la incorrecta obtención, disfrute o destino de la subvención.

2. La negativa al cumplimiento de esta obligación se considerará resistencia, excusa, obstrucción o negativa a los efectos previstos en el artículo 33 de Norma Foral 5/2005 de Subvenciones, sin perjuicio de las sanciones que, en su caso, pudieran corresponder.

3. ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA-SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADI deberá poner en conocimiento del Departamento de Medio Natural y Agricultura cualquier circunstancia que suponga una alteración de las condiciones tenidas en cuenta en la concesión de la subvención y la obtención de otras ayudas o subvenciones para la misma finalidad.

4. La Entidad beneficiaria deberá conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control.

HAMASEIGARRENA.- Arau-haustek eta zehapenak.

Hitzarmen honen ondorioz dirulaguntzaren arloan sor daitezkeen arau-haustek eta zehapenak

DECIMOSEXTA.- Infracciones y sanciones.

Las infracciones y sanciones en materia de la subvención a que da lugar el presente convenio, se



Dirulaguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauak IV. tituluko I eta II kapituluaren xedatutakoaren arabera arautuko dira.

regirán por lo dispuesto en capítulo I y II del título IV de la Norma Foral 5/2005 de Subvenciones.

HAMAZAZPIGARRENA.- Hitzarmenaren indarraldia eta amaitzeko arrazoiak.

Hitzarmen hau baliozkotasunez emandako azken sinaduraren egunean jarriko da indarrean, baina 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondoreak. Indarrean egongo da 2026ko abenduaren 31ra arte; nolanahi ere, indarrean iraungo du alderdiek euren gain hartutako konpromiso guztiak bete arte edo azken du arte.

DECIMOSÉPTIMA.- Vigencia del Convenio y causas de extinción.

El presente Convenio entrará en vigor el día de la última firma válidamente emitida, si bien sus efectos se producirán desde el 1 de enero de 2026, extendiéndose su vigencia hasta el 31 de diciembre de 2026. En todo caso, permanecerá vigente hasta el cumplimiento de todos los compromisos en él asumidos o hasta su resolución.

HAMAZORTZIGARRENA.- Jarraipen batzordea.

Hitzarmen honen baitan Jarraipen Batzordea sortu da. Batzorde horren xedea baterako jarraipena egitea eta alderdien jarduerak koordinatzea izango dira, bakoitzak bere eskumen eta zereginen eremuaren barruan jarduten duela, hartutako betebeharrak eta hitzarmen honen helburu orokorrak betetzeko.

DECIMOCTAVA.- Comisión de Seguimiento.

En el seno del presente Convenio se crea una Comisión de Seguimiento cuyo objeto será efectuar el seguimiento conjunto y coordinar las actuaciones de las partes, dentro del marco de sus respectivas competencias y funciones, en orden al cumplimiento de las obligaciones contraídas y objetivos generales del presente convenio.

Hona hemen Jarraipen Batzordearen eginkizunak:

-Hitzarmena betetzeko eta interpretatzeko egon daitezkeen arazoak ebaztea.

-Hitzarmen hau betetz aldeek egingo dituzten jarduketa guztiak jarraitu eta koordinatzea, kontuan hartuta kasu bakoitzean ezarritako baldintzak bete behar direla helburua betetzeko.

-Hitzarmen honen xedea errazago betetzeko beharrezko inguruabarrak sustatzea, sortzen diren gorabehera guztiak baloratuta, gorabehera horien erruz alderdietako batek bere konpromisoak betetzeko eragozpenak baditu edo bete ezin baditu; kasuan kasu, alderdiei proposamen egokia aurkeztuko die.

-Legez dagozkion gainerakoak.

Hauexek izango dira Jarraipen Batzordeko sei kideak:

Bi, Bizkaiako Foru Aldundiaren ordezkari gisa. Ingurumen Zuzendaritza Nagusiko titularra; haren orde, Zuzendaritza Nagusi horretako zerbitzaburutzat edo atala betetzen duana jarri ahal

Serán funciones de esta Comisión de Seguimiento:

-Resolver los problemas de interpretación y cumplimiento que puedan presentarse.

-Seguimiento y coordinación de todas aquellas actuaciones que lleven a cabo las partes en cumplimiento de este convenio, teniendo en cuenta que el cumplimiento del objeto previsto se halla sujeto a que se den las condiciones precisas en cada supuesto.

-Promover las condiciones que sean necesarias para favorecer el cumplimiento del objeto de este convenio, valorando todas aquellas incidencias que puedan producirse y dificulten o impidan el cumplimiento por parte de alguna de las partes de sus compromisos, elevando, en su caso, la oportuna propuesta a las partes.

-Aquellas otras que legalmente le correspondan.

La Comisión de Seguimiento estará integrada por seis miembros:

Dos en representación de la Diputación Foral de Bizkaia. La persona titular de la Dirección Gneral de Medio Ambiente, que podrá ser sustituida por quien ocupe una Jefatura de servicio o sección en dicha



izango da. Ingurumen Kalitateko Zerbitzuaren burutza, horren orde, zerbitzu horretako atal burutza duen pertsona bat edo hark eskuordetzen duen zerbitzuko teknikaria jarri ahal izango da.

Eraginkortasun- eta/edo egokitasun-arrazoiak direla-eta, Bizkaiko Foru Aldundiak batzorde horretako ordezkariak izendatu ahal izango ditu, eta hitzarmen honetan parte hartzen duten beste bi erakundeei ordezkariak horren berri eman beharko die deitutako bilera egin aurretik.

Bi, BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOAREN ordezkari: lehendakaria edo ora ordezkari duen pertsona eta erakundearen arduradun teknikoa.. Pertsona horiek beste kide batzuekin ordezkari ahal izango dira, Fundazioak erabakitzen duenaren arabera.

Bi, ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA-SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADIren ordezkari: lehendakaria edo ora ordezkari duen pertsona eta erakundearen arduradun teknikoa.. Pertsona horiek beste kide batzuekin ordezkari ahal izango dira, fundazioak erabakitzen duenaren arabera.

Batzordeburua Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumeneko zuzendari nagusia izango da, eta kalitateko botoa izango du erabakiak hartzerakoan berdinketa gertatuz gero.

Jarraipen Batzorde hori gutxienez urtean behin bilduko da; hitzarmen honetan aurreikusitako egoeretan ere bilduko da, eta betiere, aldeetako batek eskatzen duenean eta bilera-eskaeraren arazoia adierazi ondoren.

Batzordea baliozkotasunez eratu dadin, kideen gehiengoak bildu beharko da. Erabakiak gehiengoaren botoez hartuko dira.

Hitzarmen honetan Jarraipen Batzordearen araubideari buruz zehatz-mehatz aurreikusten ez diren kontuetan, kide anitzeko organoen araubidea aplikatuko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 2ko 40/2015 Legean arautua.

Dirección General. La jefatura del Servicio de Calidad Ambiental que podrá ser sustituida por una persona que ocupe una jefatura de sección en dicho servicio o técnico/a del servicio en quien delegue.

Por razones de operatividad y/o oportunidad la Diputación Foral de Bizkaia podrá designar a personas suplentes en esta comisión, debiendo comunicar a las otras dos entidades participantes de este convenio esta suplencia con antelación a la celebración de la reunión convocada.

Dos en representación de la FUNDACIÓN BANCARIA BBK: el /la Presidente/a o persona que la represente y el/la responsable técnico de la entidad. Estas personas podrán ser sustituidas por otros miembros según decida la Fundación.

Dos en representación de ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA-SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADI: el /la Presidente/a o persona que la represente y el/la responsable técnico de la entidad. Estas personas podrán ser sustituidas por otros miembros según decida la asociación.

La Presidencia de la misma corresponderá a la persona que ostente el cargo de Director/a General de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Bizkaia o persona que le sustituya., que tendrá voto de calidad en caso de empate a la hora de tomar decisiones.

Esta Comisión de Seguimiento, que celebrará una reunión mínima anual, se reunirá en los supuestos previstos en el presente Convenio, y, en todo caso, cuando así lo solicite una de las partes indicando el motivo de la solicitud de reunión.

El quórum necesario para la válida constitución de la Comisión será el de mayoría de sus componentes, adoptándose sus acuerdos por mayoría de votos.

En lo no previsto expresamente en este Convenio, sobre el régimen de la Comisión de Seguimiento, le será aplicable el régimen de los órganos colegiados regulados en la Ley 40/2015 de 2 de octubre de régimen jurídico del Sector Público.



**HEMERETZIGARRENA.- BIZKAIKO FORU
ALDUNDIAREN AGINTZEA ETA IZAPIDETZA.**

Ingurumenaren Kalitatea Zaintzeko Zerbitzua izango da prozedura kudeatzen duen organoa. Hark ofizioz egingo ditu beharrezkotzat jotzen dituen jarduketak, oinarri hartu beharreko datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatzeko. Izan ere, datu horiek ezinbestekoak izango dira hitzarmen honen xede den diru-laguntza aitortzeko eta justifikatzeko, bai eta ebazpena eman behar duen organo eskudunari ebazpen-proposamena egiteko.

